

ZERTIFIKAZIO ENERGETIKOA



TINKA ENERGIAK S.L.

c/mendinueta 8b
31700 Elizondo-Nafarroa
Tel. 948 45 27 72
F 637 89 50 32 JM 607 63 18 81
tinka@tinkaenergiak.com

Zertifikazio energetikoa (Real decreto 235/2013)

Zertifikazio energetikoa eraikin edo etxebizitza energetikoki kalifikatzeko prozesua da. Bertan, eraikinak dituen behar energetikoak kalkulatu dira, eta behar horiek betetzeko erabiltzen den energia-iturriaren arabera (gas naturala, elektrizitatea, biomasa...) ze CO₂ isurketa dituen kalkulatu da.

2007az geroztik, CTE (Código Técnico de la Edificación) publikatu zutenetik, eraikitzen ziren etxebizitzek bakarrik zuten nahitaezkoa zertifikazio energetikoa egitea. Joan den apirilean martxan jarri zuten 235/2013 dekretoren arabera, lehendik dauden etxebizitzek ere (legean izendatuta daudenek), nahitaezkoa dute agiri hau egitea. Honekin Estatuko etxebizitzak/eraikinak energetikoki eraginkorrak izatea lortu nahi da.

- Zer ematen du zertifikazio honek?

Zertifikazioa egin eta gero ziurtagiri bat lortzen da, etiketa batekin. Bertan eraikinak duen kalifikazioa energetikoa ageri da, dituen CO₂ isurketen arabera. Kalifikazioa letra baten bitartez ageri da, "A" letratik hasita "G" letraraino. "A" lor daitekeen kalifikazio onena da eta "G" txarrena. Honez gain, bezeroari dokumentu bat ematen zaio, eraikinaren gainerako datuekin.

- Ze eraikinek behar dute ziurtagiri energetikoa?

Ziurtagiri hau beharrezkoa duten eraikinak hauek dira:

- Etxebizitza/eraikin berriek
- Saldu edo alokairuan jarri behar diren etxebizitzek, nagusi berri batek hartu behar baditu
- Administrazioa publikokoak diren eraikinek, 250 m² baino gehiago dituztenak eta maiz jendez beteta daudenak
- Ze eraikinez ez dute ziurtagiri beharrik?
 - Ingurunearen parte izateko ofizialki babestutako monumentu edo eraikinak edo bere balio arkitektoniko edo historiko partikularraren arabera.
 - Gurtza-leku edo jarduera erlijiosoetarako erabilitako eraikinak edo eraikin zatiak.
 - Bi urte edo gutxiagoko erabilera aurreikusia duten behin-behineko eraikinek.

- Eraikin industrialak, defentsa eta nekazaritza eraikinak, edo hauen parte bat, lantegi, prozesu industrial, defentsa eta nekazaritzara zuzendutakoak, ez bizitzekoak.
- 50 m² baino azalera erabilgarri txikiagoa duten isolatutako eraikinak.
- Erreforma garrantzitsu edo eraistea egiteko erosten diren eraikinak.
- Urtean 4 hilabete baino erabilera txikiagoa edo urtean denboraldi mugatu batean erabiltzen diren etxebizitzak, eta energia kontsumoa urtean erabiliko litzatekeenaren %25 baino gutxiagokoa dela aurreikusten bada, beti ere etxebizitzaren jabeak emandako adierazpena arduratsuaren arabera.

- Zertarako balio du ziurtagiri honek?

Ziurtagiri honek erabiltzaileak/ek eraikina energetikoki nolakoa den jakitea lortu nahi du, eta gizartea ohar dadila ze garrantzia duen energia behar bezala erabiltzeak. Saldu edo alokairuan jartzen diren etxebizitzaren erosleek/erabiltzaileek ziurtagiria izateko eskubidea dute.

- Nork agindu behar du etxebizitza/eraikinaren zertifikazioa egiteko?

Promotoreak edo etxebizitzaren jabeak eskatu behar du eta pertsona hau da dokumentua gordetzeaz arduratuko dena.

- Zenbat denborako iraupena du ziurtagiriak?

Ziurtagiriak 10 urteko iraupena du. Administrazio publikoko eraikinetan Erkidego bakoitzeko organo arduraduna da berritzea eskatuko duena; eta etxebizitzetan nagusia da berritzeaz arduratuko dena. Nagusiak etxebizitzan aldaketaren bat egiten badu eta uste badu zertifikazioa aldatu (hobetu) zaiola, nahiz eta 10 urteak ez igaro, aukera du boluntarioki zertifikazio berria egiteko.

- Etiketa publikoki erakutsi behar da?

Administrazio publikokoak diren eraikinetan, zeinetan jendea ibiltzen den eta 250 m² baino gehiago dituen, etiketa agertzea nahitaezkoa da.

Gainerako etxebizitzak ez daude etiketa agerian jartzera behartuak, nahi izanez gero publikoki erakusten ahal dute, baina Erkidegoko organo arduradunak esaten duenaren arabera beti ere.

Tinka energiak S.L.-k bere bezeroei zerbitzu hau eskaintzen die. Lehen aipatu bezala, ziurtagiri honen bitartez etxebizitza batek dituen behar energetikoak

kalkulatzen dira eta behar horiek asetzeko erabiltzen den energia iturriak dituen CO₂ isurketak kontuan hartzen dira.

Lege hau ekainaren 1etik aurrera da eraginkorra, beraz etxebizitza saldu edo alokatu edo erosi edo errentan hartu behar baduzu interesgarria da informazio hau izatea.

A edo B kalifikazioa duen eraikina energetikoki oso ona da. Ziur aski dituen galerak txikiak izango dira eta erabiltzen duen energia-iturria berriztagarria izango da (biomasazko galdara edo tximinia, eguzki-plakak, haize-errota...).


Aldiz, E, F edo G kalifikazioa badu ondoriozta daiteke galera garrantzitsuak dituela eta gainera erabiltzen duen energia-iturria ez dela berriztagarria, ingurugiroan kutsadura sortuz.

C eta D kalifikazioak dira normalean aurkituko direnak, 2007 aurretik eraikitako etxebizitzak ez baitira gaur egungoak bezain eraginkorrak, orduan erabilitako materialak gaurkoak baino kalitate baxuagokoak baitziren.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da eraikina behar bezala islatuta egotea eta energia-iturri garbi bat erabiltzea.

Etiketak hurrengo orrialdean dagoen irudiaren itxura izango du eta bertan agertzen den letrak eraikinak nolako jokaera energetikoa duen esango dio erabiltzaileari.

Etiketaz gain, dokumentu bat ematen zaio zertifikazioa egitea eskatu duenari. Dokumentu honetan eraikinean egiten ahal dituen aldaketa eraginkorrak proposatuko zaizkio eraikinaren eraginkortasuna hobetzeko asmoz.



Etiqueta de calificación energética



